Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta

Gipuzkoa

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

**Akta zenbakia:** 5/2012
**Bilera data:** 2012-05-29
**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordu:** 19:00- 19:55
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**
**Alkatea:** Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**
Maribel Vaquero Montero
David Rosco Jorge
Koldo Aramendi Goikoetxea
Miren Martiarena Barkaiztegi
Andoni Urbistondo Aranburu
Ixiar Martiarena Lizarazu
Xabier Yurramendi Garmendia
Mikel Costas Lopez
Ane Salsamendi Tolosa
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo

**Bitarteko idazkaria:**
Nagore Alkorta Elorza

**Aztergaiak:**

**1.- 2012ko martxoaren 27ko eta apirilaren 24ko aktak onartzea, bidezkoa bada.**

**2.- Tokiko Gobernu Batzarraren eta Alkatetzaren ebazpenen berri ematea: 2012ko martxoaren 13ko eta 27ko aktak, apirilaren 17koa eta maiatzaren 2koa.**

**3.- Elkarkidetza**

**Acta nº:** 5/2012
**Fecha:** 29-05-2012
**Tipo de reunión:** Pleno Ordinario
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 19:00 – 19:55
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**
**Alcalde:** Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**
Maribel Vaquero Montero
David Rosco Jorge
Koldo Aramendi Goikoetxea
Miren Martiarena Barkaiztegi
Andoni Urbistondo Aranburu
Ixiar Martiarena Lizarazu
Xabier Yurramendi Garmendia
Ane Salsamendi Tolosa
Mikel Costas López
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos González
José Guirado Novo

**Secretaria interina:**
Nagore Alkorta Elorza

**Orden del día:**

**1.- Aprobación, si procede, de las actas de 27 de marzo, y de 24 de abril de 2012.**

**2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.- actas de los días 13 y 27 de marzo, 17 de abril, y 2 de mayo de 2012.**

**3.- Elkarkidetza**

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

**4.- Aitziber Zurutuza San Markoko Mankomunitateko kontu-hartzaile izendatzea.**

**5.- Langabeei buruz Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa.**

**6.- Galderak eta eskaerak**

**4.-Nombramiento de Aitziber Zurutuza como Interventora de la Mancomunidad de San Marcos.**

**5.- Moción presentada por el grupo Municipal socialista sobre los desempleados.**

**6.- Ruegos y preguntas**

- **<u>Gai baten premiazkotasunari buruzko erabakia</u>**

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza, eta adierazi du badela gai bat, Langardari buruzkoa, gai zerrendan sartu ez dena.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudian ezarritakoaren arabera, gai bat eguneko gai zerrendan sartzeko eta hartzen den erabakia baliozkoa izateko ezinbestekoa da aurrez premiazkotzat jotzea.

Eztabaidaren ostean, alkateak bozketa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan da:

Alde:13 (EAJ-PNV 5, BILDU 5, PSE-EE/PSOE 3)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

Bozketaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

**ERABAKIA**

**<u>Lehenengoa.-</u>** Gai zerrendan LANGARDAri buruzko gaia sar dadila onartzea.

- **<u>Pronunciamiento sobre la urgencia</u>**

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola señalando que hay un asunto, el referente al tema de Langarda, que no se ha incluido en el orden del día.

Según lo señalado en el reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales, es necesario, para la inclusión de un asunto en el orden del día y así sea válido el acuerdo que se adopte la previa declaración de urgencia.

Tras el debate, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 13 (EAJ-PNV 5, BILDU 5,PSE-EE/PSOE 3)

En contra: 0

Abstenciones: 0

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los asistentes ha adoptado el siguiente

**ACUERDO**

**<u>Primero.-</u>** Aprobar la inclusión en el orden del día del tema de LANGARDA

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

**1.- 2012ko martxoaren 27ko eta apirilaren 24ko aktak onartzea, bidezkoa bada**

Alkateak adierazi du 2012ko martxoaren 27ko eta apirilaren 24ko aktak onartu behar direla.

Ondoren, inork horren inguruan ezer esatekorik ba ote duen galdetu du.

Onartutzat eman dira 2012ko martxoaren 27ko eta apirilaren 24ko aktak.

**2.- Tokiko Gobernu Batzarraren eta Alkatetzaren ebazpenen berri ematea: 2012ko martxoaren 13ko eta 27ko aktak, apirilaren 17ko akta eta maiatzaren 2ko akta.**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2012ko martxoaren 13an eta 27an, apirilaren 17an eta maiatzaren 2an egindako bileren akten berri eman zaie udalkideei. Beraz, jakinaren gainean geratu dira.

**3.- Elkarkidetza**

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza, eta adierazi du gai horretaz hitz egin zutela 2012ko maiatzaren 17an egindako Langileria eta Enpleguko informazio batzordean.

Alkateak adierazi du orain arte Urnietako Udaleko eta sozietate publikoetako langileek aukera zutela hilero Elkarkidetzan diru ekarpen bat egiteko. Ekarpen horretaz gain, Udalak beste ekarpen bat egiten zuen, hein berekoa. Udalak egiten zuen ekarpenaren % 90 pentsio planetarako zen eta gainerako % 10a arrisku kapitalerako. Baina, 20/2011 Errege Lege Dekretuarekin bat etorriz, ezingo da pentsio planetarako ekarpenik egin.

**1.- Aprobación, si procede, de las actas de 27 de marzo, y de 24 de abril de 2012.**

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar las actas de los días 27 de marzo y 24 de abril de 2012.

Asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.

Se dan por aprobadas las actas de los días 27 de marzo, y 24 de abril de 2012.

**2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.- actas de los días 13 y 27 de marzo, 17 de abril, y 2 de mayo de 2012.**

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local los días 13 y 27 de marzo, 17 de abril, y 2 de mayo de 2012, de modo que han quedado informados.

**3.- Elkarkidetza**

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola para señalar que este tema se trató en la Comisión Informativa de Personal y Empleo celebrada a fecha 17 de mayo de 2012.

Señala el alcalde que hasta ahora los trabajadores del Ayuntamiento de Urnieta y sus sociedades públicas tenían la posibilidad de realizar mensualmente una aportación a Elkarkidetza. Junto a esa aportación y en la misma cuantía el Ayuntamiento efectuaba otra aportación. El 90% de la aportación que realizaba el Ayuntamiento iba dirigido a los planes de pensión y el 10% restante para el capital de riesgo. Pero , en virtud de la aplicación del Real Decreto Ley 20/2011

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

Hori horrela, proposatzen da, indarrean dagoen araudia betez, Udalak arrisku kapitalari dagokion % 10a jar dezala langileentzat eta utz diezaiola pentsio planetarako gainerako % 90a jartzeari.

no se podrá hacer ninguna aportación correspondiente a los planes de pensión. Por todo lo expuesto, se propone, en cumplimiento de la normativa vigente, que el Ayuntamiento aporte para los trabajadores el 10% correspondiente al capital de riesgo y deje de aportar el 90% restante correspondiente a los planes de pensión.

Udal talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta idazkariari eskatu dio jakinaraz diezaiela proposatutako neurriak legea betetzen ote duen.

Toma la palabra el portavoz del Grupo Municipal socialista, Hermenegildo González solicitando que la Secretaria les apercibiera de que la medida propuesta cumple la legalidad.

Nagore Alkorta idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du udalak hainbat jarrera ari direla hartzen horren inguruan, baina nabarmendu du Elkarkidetzaren proposamenak, osoko bilkura honetan botopean jarriko denak, zorrozki betetzen duela Errege Lege Dekretuak xedatutakoa. Gaur hartu beharreko erabakia udal langileei aplikatuko zaie eta ondoren sozietate publikoetako organoek dagozkien erabakiak hartu beharko dituzte.

Toma la palabra la secretaria Nagore Alkorta señalando que los Ayuntamientos están adoptando distintas posturas al respecto, pero recalca que la propuesta de Elkarkidetza, que es la que se someterá a votación en este pleno, sigue estrictamente lo señalado por el Real decreto ley. El acuerdo a adoptarse hoy se aplicará con respecto a los trabajadores del Ayuntamiento y serán los respectivos órganos de las Sociedades Públicas las que irán adoptando sus respectivos acuerdos.

Bilduko bozeramaile Xabier Yurramendik hartu du hitza, eta adierazi du lege kontu bat dela.

Toma la palabra el portavoz de Bildu Xabier Yurramendi señalando que se trata de un tema legal.

Alkateak bozketa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan da:

Alde: 13 (EAJ-PNV 5. BILDU 5, PSE-EE/PSOE 3)
Kontra: 0
Abstentzioak:0

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto con el siguiente resultado:

A favor: 13 (EAJ-PNV 5, BILDU 5,PSE-EE/PSOE 3 )
En contra: 0
Abstenciones:0

Bozketaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, el Pleno ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.-** Udalak Elkarkidetzari egiten dion

**Primero.-** Proceder al abono del 10% de la

ekarpenaren % 10 ordaintzea, hau da, kide babeslearentzako arrisku kontingentziari dagokiona (arrisku prima).

aportación del Ayuntamiento, a Elkarkidetza, correspondiente a la contingencia de riesgo al socio protector (prima de riesgo).

**Bigarrena**.- Elkarkidetzari erabaki honen berri ematea.

**Segundo.-** Dar cuenta de este acuerdo a Elkarkidetza.

**4.- Aitziber Zurutuza San Markoko Mankomunitateko kontu-hartzaile izendatzea.**

**4.-Nombramiento de Aitziber Zurutuza como Interventora de la Mancomunidad de San Marcos.**

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza, eta adierazi du gai horri buruz hitz egin zutela 2012ko apirilaren 24ko Langileria eta Enpleguko Informazio Batzordean. Horren inguruan, alkateak adierazi du Aitziberrek urte hauetan ondo erakutsi duela lanerako duen gaitasuna eta erantzukizunak hartzen joan dela, eta Aitziberrek berak adierazi duela Udaleko bere lanak izango duela lehentasuna eta bi karguak batera ondo bete ezin baditu uko egingo diola San Markoko Mankomunitateko kontu-hartzaile lanpostuari.

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola para señalar que este tema se trató en la Comisión Informativa de Personal y Empleo de fecha 24 de abril de 2012. A este respecto señala el alcalde que Aitziber ha demostrado durante estos años su cualificación en el trabajo y responsabilidades que ha venido asumiendo y que ella misma ha señalado que tendrá prioridad su puesto de trabajo en el Ayuntamiento y que en caso de no poder compaginar ambos cargos renunciará al puesto de Interventora de la Mancomunidad de San Marcos.

Udal talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza eta adierazi du Aitziber izendatzearen aldeko botoa emango dutela eta uste dutela asko balio duela. Dena dela, eskatu dute izendapen horrek ez diezaiola eragin Udalean egiten duen lanari.

Toma la palabra el portavoz del Grupo Municipal socialista Hermenegildo González señalando que votarán a favor del nombramiento de Aitziber, y que entienden que es muy válida. No obstante, solicitan que ese nombramiento no afecte al trabajo que desarrolla en el Ayuntamiento.

Bilduko bozeramaile Xabier Yurramendik hartu du hitza eta adierazi du izendapenaren aldeko botoa emango dutela, uste baitute erronka interesgarria izango dela Aitziberrentzat.

Toma la palabra el portavoz de BILDU Xabier Yurramendi señalando que votarán favor del nombramiento y que entienden que eso supondrá un reto interesante para Aitziber.

Udal idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du izendapen horrekin aldaketa bat egin behar dela Udaleko lanpostuen zerrendan, kontu-hartzailearen lanpostuari dagokion berariazko osagarrian.

Toma la palabra la secretaria municipal señalando que con el nombramiento ha de hacerse una modificación en la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento, en relación al complemento específico asignado al

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

puesto de Interventora.

Alkateak bozketa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan da:

Alde: 13 (EAJ-PNV 5, BILDU 5, PSE-EE/PSOE 3)
Kontra: 0
Abstentzioak:0

Bozketaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

**ERABAKIA**

**Lehenengoa.-** Aitziber Zurutuza udal kontu-hartzailea San Markoko Mankomunitateko kontu-hartzaile izenda dadila onartzea.

**Bigarrena.-** Udal kontu-hartzailearen lanpostuari dagokion berariazko osagarria aldatzea Urnietako Udalaren lanpostuen zerrendan.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto con el siguiente resultado:

A favor: 13 (EAJ-PNV 5, BILDU 5,PSE-EE/PSOE 3 )
En contra: 0
Abstenciones:0

Tras la votación, el Pleno ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar el nombramiento de la Interventora municipal Aitziber Zurutuza como Interventora de la Mancomunidad de San Marcos.

**Segundo.-** Modificar el complemento específico del puesto de Interventora municipal de la Relación de Puestos de trabajo del Ayuntamiento de Urnieta.

**5.- Langabeei buruz Udal Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa.**

Udal talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du legealdiaren hasieratik daudela gai honekin kezkatuta, beste guztiak bezala. Adierazi du aurrekontuak onartu zirenean Urnietako langabeei lana eskaintzeko aukera planteatu zutela. Adierazi du kontua oso zail jarri dela, are zailago Raxoiren dekretuarekin, baina ez dutela amore emango eta horregatik sartu dutela mozio hori. Izan ere, legeak ematen duen azken aukera ere baliatu nahi dute Udalak langabeei lana eskaini ahal izan diezaien. Adierazi du mozioa 2012ko maiatzaren 18an sartu zutela eta egia dela hainbat batzordetan hitz egin dutela horri buruz, horren gainean ados

**5.- Moción presentada por el grupo Municipal socialista sobre los desempleados.**

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal socialista Hermenegildo González, señalando que se trata de un tema que desde el inicio de esta legislatura les viene preocupando, como a todos. Señala que ya en la aprobación de los Presupuestos ellos plantearon la posibilidad de poder ofrecer empleos a los desempleados de Urnieta. Señala que la cosa se ha puesto difícil y que a raíz del Decreto de Rajoy más aún, pero que no se dan por vencidos y que por eso han metido esa moción y que quieren utilizar hasta el último resquicio legal para que el Ayuntamiento pueda ofrecer trabajo a los desempleados. Señala que la moción la registraron el día 18 de mayo de

## 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

ere jarri direla eta ezabatu egin dutela planteatzen zuten puntuetako bat. Hala, bi hauek gelditu dira:

*"1. Urnietako Udalak azter dezala herriko langabeak kontratatzeko zer lege aukera dituen eta egin dezala horren inguruko txosten bat.*

*2. Urnietako Udalak sor dezala lanik gabe dauden langileen poltsa bat".*

Bilduko bozeramaile Xabier Yurramendik hartu du hitza, eta adierazi du gai honi buruz jardun dutela Bozeramaileen Batzarrean eta Raxoiren Dekretuak ezarritako mugak gorabehera beste aukera batzuk bilatu beharko direla, hala nola Lanbideren programak eta halakoak. Adierazi du gustatuko litzaiekeela Urnietako langabeak kontratatzea, nahiz eta horrek Udalari kostu bat ekarri, esate baterako, mugikortasun arloko lanak egiteko eta abar.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta adierazi du pozten dela gai honetan denok ados egotea, baina adierazi du, zoritxarrez, daukagun lege-esparrua daukagula eta horrek, Raxoiren Dekretuak xedatzen duenaz gain, debekatu egiten duela nahitaezko betekizun gisa ezartzea langabeak kontratatzeko Urnietan erroldatuta egon behar dutela. Izan ere, kastu horretan, idazkariak segur aski lege ohartarazpen bat egingo luke. Maribelek nabarmendu du Urnietako Udalak dituen lege aukerak eta mekanismoak dituela, ez baita ez Estatu, ez Eusko Jaurlaritza, ez Aldundi —bistan denez, arautzeko eta enplegua sustatzeko eskaintzak eta planak egiteko askoz ere ahalmen handiagoa duten erakundeak—, eta Udalak aztertuko dituela zer lege aukera dituen herriko langabeak kontratatzeko, aldez aurretik jakinik, legea eskuan, ezin direla gainerako langabeak baztertu.

2012 y que es cierto que se ha tratado en distintas comisiones, que se ha consensuado el tema y que han eliminado uno de los puntos que planteaban, quedándose los dos siguientes:
"

1. *Que el Ayuntamiento de Urnieta estudie y emita informe de las posibilidades legales que tenemos para poder contratar a desempleados/as de nuestro Municipio.*
2. *Que por parte del Ayuntamiento de Urnieta se proceda a crear una bolsa de trabajadores/as que estén en desempleo.* "

Toma la palabra el portavoz de BILDU Xabier Yurramendi, para señalar que este tema se ha tratado en la Junta de Portavoces y que a pesar de las limitaciones impuestas por el Decreto de Rajoy habrá que buscar otros resquicios, programas de Lanbide etc. Señala que les gustaría poder contratar a desempleados de Urnieta, aún suponiendo un coste para el Ayuntamiento, por ejemplo para ejecutar obras de movilidad etc.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero para señalar que se alegra de que haya consenso en este tema pero señala que por desgracia el marco legal es el que tenemos y que la misma, además de lo que señala el Decreto de Rajoy prohíbe el establecimiento como requisito obligatorio para poder ser contratados los desempleados el hecho de estar empadronados en Urnieta. Y que seguramente en estos supuestos la secretaria nos haría un apercibimiento de legalidad. Recalca Maribel que el Ayuntamiento de Urnieta tiene las posibilidades y mecanismos legales que tiene, que no somos ni Estado ni Gobierno Vasco ni Diputación, que evidentemente tiene mucho más poder para regular y para hacer ofertas y planes de fomento de empleo y que desde el Ayuntamiento estudiaremos todas las posibilidades legales que tenemos para poder

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

contratar a los desempleados de nuestro municipio, sabiendo de antemano que con la ley en la mano no podemos excluir al resto de los desempleados.

Alkateak hartu du hitza, eta adierazi du gaur goizean sinatu dutela Andoainen **Sustapen Ekonomikorako eta Enplegurako Eskualdeko Lankidetza Protokolo Orokorra**. Hain zuzen, horren barruan biltzen dira Donostialdeko udalerriak.

Toma la palabra el alcalde para señalar que esta mañana han firmado en Andoain el **Protocolo General de Colaboración Comarcal en materia de Promoción Económica y Empleo**, en el cual se integran los municipios de Donostialdea.

Alkateak bozketa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan du:

Alde: 13 (EAJ-PNV 5, BILDU 5, PSE-EE/PSOE 3)
Kontra: 0
Abstentzioak:0

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto con el siguiente resultado:

A favor: 13 (EAJ-PNV 5, BILDU 5,PSE-EE/PSOE 3 )
En contra: 0
Abstenciones:0

Bozketaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, el Pleno ha adoptado por unanimidad el siguiente

**ERABAKIA**

**Lehenengoa**.- Langabeak kontratatzeko mozioa onartzea, ondoko puntuekin:

*"1. Urnietako Udalak azter dezala herriko langabeak kontratatzeko zer lege aukera dituen eta egin dezala horren inguruko txosten bat.*

*2. Urnietako Udalak sor dezala lanik gabe dauden langileen poltsa bat".*

**Bigarrena**.- Erabaki hau Idazkaritza, Kontu-hartzailetza eta Gizartekintza sailei jakinaraztea, dagokion txostena egin dezaten.

**ACUERDO**

**Primero.-**Aprobar la moción para la contratación de desempleados con los siguientes puntos:

*1.-Que el Ayuntamiento de Urnieta estudie y emita informe de las posibilidades legales que tenemos para poder contratar a desempleados/as de nuestro Municipio.*
*2.-Que por parte del Ayuntamiento de Urnieta se proceda a crear una bolsa de trabajadores/as que estén en desempleo.* " ( Anexo I)

**Segundo.-** Notificar este acuerdo a los Departamentos de Secretaría, Intervención y Acción Social para que procedan a la elaboración del informe correspondiente.

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

**6.- Langarda**

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza, eta adierazi du 2012ko maiatzaren 17an udal talde sozialistak eta Bilduko zinegotziek ohiz kanpoko osoko bilkura bat eskatu zutela Langardako gaiaz hitz egiteko. Horren harira, hainbat bilera egin dira, eta horren emaitza gisa, proposamen bat aurkeztu da. Adostutako proposamenak ondoko puntuak jasotzen ditu:

*"1.- 2011ko maiatzaren 6an, Udal honek construcciones Amenabar S.S.,ren kontra hasitako administrazio espedienteari ofizialki iraungitze data jartzea eta jakinaraztea.*

*2.- Langarda auzoan dauden hirigintza hutsegiteak presazko izaeraz eta lehentasunez konpontzeko gaia landuko duen batzorde berezi bat eratzea.*

*- Besteak beste, batzorde honek, Udalak bere esku dituen legezko, administrazioko eta teknikarien txosten guztiak eskura izango ditu (urbanizazio-proiektuak, proiektu horiek gauzatzeko proiektuak, obren jarraipen txostenak, obra amaierako ziurtagiriak, FCC-ren txostena, VAUMM-en txostena, ASTIV-en txostena).*

*- Hirigintza hutsegite hauek egindako kalte eta ondorioen zenbatekoa zehazten duten finantza-txostenak eskatuko ditu. Aurkeztu daitezkeen irtenbide teknikoen finantza-txostenak ere eskatu ahan izango ditu.*

*Urbanizazioan orokorrean, lursailetan, ur-hargunеetan, lur-metaketetan, urbanizazio amaieran dauden hirigintza hutsegiteak*

**6.- Langarda**

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola para señalar que el 17 de mayo de 2012 el grupo municipal socialista y los concejales de Bildu solicitaron la celebración de un pleno extraordinario para hablar del tema de Langarda. A raíz de su presentación se han celebrado distintas reuniones y de las mismas ha resultado la presentación de una propuesta con respecto a ese tema. La propuesta consensuada recoge los siguientes puntos:

*"1.- Dar oficialmente caducidad al expediente administrativo iniciado el 6 de mayo de 2011 a Construcciones Amenabar S.S por este Ayuntamiento y notificárselo.*

*2.-Creación de una comisión especial para abordar con carácter urgente y prioritario la solución de las deficiencias urbanísticas existentes en el barrio de Langarda.*

*-Entre otras tareas, esta comisión tendrá a su disposición todos los informes jurídicos, administrativos y técnicos que ya obran en poder del Ayuntamiento ( proyectos de urbanización; informes de ejecución de esos proyectos; informes sobre el seguimiento de las obras; certificados fin de obra; informe de VAUMM; informe técnico de ASTIV).*

*- También solicitará informes financieros que cuantifiquen el monto de los daños y perjuicios irrogados en estas deficiencias urbanísticas. Así como los informes financieros de las distintas soluciones técnicas que se puedan plantear.*

*- Analizará las distintas propuestas o soluciones técnicas que se puedan aportar para poder solucionar las deficiencias urbanísticas, en la*

## 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRARAREN AKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

*konpontzeko aurkez daitezkeen proposamen edo irtenbide teknikoak ikertuko ditu.*

*- Azkenik, uztailaren 31a baino lehen, ondorioak proposatuko ditu, Udalak, Langarda auzoan dauden hirigintza hutsegiteen arduradun tekniko guztien aurrean administrazio espediente berri bat hasteko.*

Alkateak adierazi du Langardako Informazio Batzorde Berezi bat itxuratu dutela eta zirriborro bat aurkeztu zaiela udal taldeei.

Udal talde sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza eta ondoko testua irakurri du:

*"Langarda auzoan eraikitako etxebizitzen lehen erabilerako lizentzia emateko, ezinbesteko baldintza zen ASTIV SL enpresak idatzitako proiektuan zehazten ziren lanak egitea. Hala, bukatutzat emango ziren obra amaierako ziurtagiria emateko falta ziren urbanizazio eta gauzatze lanak.*

*2007ko maiatzaren 23an, orduan Udal honetan alkate-presidente zenak ziurtatu zuen CONSTRUCCIONES AMENABAR SAri 58.138,48 euro ordaindu zitzaizkiola, hots, obra amaierako ziurtagiria emateko falta ziren urbanizazio lanei zegokien zenbatekoa, eta, beraz, betetakotzat ematen zirela Langarda auzoko urbanizazioarekin zituen betebeharrak. Hala, bere gain hartu zuen URNIETA LANGARDA A.I.E erakundeak Langarda auzoan eraikitako etxebizitzen lehenengo erabilera lizentzia emateko konpromisoa, ASTIV SL enpresak idatzitako proiektuan zehazten ziren lanak amaitutakoan.*

*urbanización general, en las parcelas, en la recogida de aguas, en los acopios de tierra, en la finalización de la urbanización.*

*- Por último, antes del 31 de julio, propondrá las conclusiones para que el ayuntamiento inicie un nuevo expediente administrativo ante todos aquellos responsables técnicos de las deficiencias urbanísticas existentes en el barrio de Langarda."*

Señala el alcalde que ya se ha hecho una configuración de la Comisión Informativa Especial de Langarda y se ha presentado un borrador a los grupos municipales.

Toma la palabra el portavoz del grupo municipal Socialista Hermenegildo González que pasa a dar lectura al siguiente texto:

*"La concesión de Licencia de primera Utilización de las Viviendas construidas en el Área de Langarda estaba condicionada a que se ejecutasen las obras señaladas en el proyecto redactado por la empresa ASTIV S.L. con el fin de que se dieran por finalizadas las obras de urbanización y ejecución que quedaban pendientes para la emisión del correspondiente certificado de fin de obra.*

*Con fecha 23 de mayo de 2007 el entonces Alcalde-Presidente de este Ayuntamiento, certifica que habiendo abonado la empresa CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. la cantidad de 58.138,48 euros, importe correspondiente a las obras de urbanización pendientes de ejecución, para proceder a la emisión del correspondiente certificado de fin de obra, se dan por cumplidas sus obligaciones en relación a la urbanización del Area de Langarda. Y, asume el compromiso de otorgar la Licencia de Primera Utilización a las viviendas construidas en el Area de Langarda por la entidad URNIETA LANGARDA A.I.E, una vez se*

Urnietako Udala — Ayuntamiento de Urnieta
Gipuzkoa

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

*Alabaina, obra haiek ez ziren egin, eta ordura arte egindakoetan ezkutuko akatsak agertu dira gerora. Gainera, ikusi da lan haiek, zorrozki aztertu ostean, ez zirela egin proiektuarekin bat etorriz. Bestalde, akats horien zenbaterainokoaren berri izan dugu, FCCk 2008ko maiatzean egindako txostenaren bidez —hustubideak bideo kamerekin aztertu zituen— eta VAUMM Arquitectura y Urbanismo SLk 2010eko urtarrilean egindako txostenaren bidez —behin-behinean ikuskatu zituen urbanizazioa aztertu aurretik sumatutako ezkutuko akatsak eta kontratuko ez-betetzeak, eta, gainera, lehenengoak konpontzeak eta bigarrenak behar bezala betetzeak zekarren gastua baloratu zuen—.*

*Txosten horiek, bai eta udal teknikariek lehenago egindakoak ere, jasota daude aurreko espedienteetan, batez ere Udal honetako alkate-presidenteak urbanizazio-lanak berreraikitzeko, konpontzeko eta/edo bukatzeko 2010eko abuztuaren 19an eta 2011ko maiatzaren 6an emandako dekretuen bidez abiarazitakoetan. Espediente horiek **iraungitzat** jo ziren.*

*Gainera, Udalak 2010eko urtarrilean zehatz-mehatz jakin zuen zer akats suntsigarri dituen, VAUMM Arquitectura y Urbanismo SLren azterlanaren bidez, eta, nahiz eta egoera onbideratzeko aurreko espedienteak iraungi diren, beste espediente bat abiaraz daiteke, erantzukizunak exijitzeko.*

*Uste dugu garaiz gabiltzala oraindik Langarda auzoan dauden gabezien erantzuleei dagozkien erreklamazioak egiteko.*

*hayan ejecutado las obras señaladas en el proyecto redactado por la empresa ASTIV S.L.*

*Visto que aquéllas obras no se ejecutaron y que en las hasta entonces ejecutadas han aparecido vicios ocultos con posterioridad a aquéllas fechas y que, además, se ha constatado, tras minucioso examen de las mismas, que no se ejecutaron conforme a proyecto y, habiendo sido conocido el alcance de dichos vicios tras los informes de FCC de mayo de 2.008 –examen de los conductos de desagües con video cámaras- y de VAUMM, arquitectura y urbanismo, S.L. de enero de 2010 –auditando provisionalmente los vicios ocultos e incumplimientos contractuales detectados por anterior examen de aquélla urbanización y que además valora el coste de reparación de aquéllos y el correcto cumplimiento de los segundos.*

*Los referidos informes, así como otros anteriores emanados de los técnicos municipales se encuentran incorporados en anteriores expedientes, principalmente en los incoados mediante sendos Decretos de la Alcaldía-Presidencia de este Ayuntamiento de fechas 19 de agosto de 2.010 y 6 de mayo de 2.011, tendentes a la reconstrucción, reparación y/o terminación de aquéllas obras de urbanización, expedientes que fueron declarados **caducados**.*

*Además el Ayuntamiento ha tenido exacto conocimiento de los vicios ruinógenos en enero de 2.010, con el estudio de VAUMM, arquitectura y urbanismo, S.L., e independientemente de que hayan caducado anteriores expedientes conducentes a regularizar la situación, pudiendo iniciar un nuevo expediente con objeto de exigir responsabilidades.*

*Consideramos que estamos dentro de plazos para poder ejercitar las reclamaciones oportunas a los responsables de las deficiencias existentes en el Area de Langarda.*

# 2012KO MAIATZAREN 29KO UDALBATZARRARAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 29 DE MAYO DE 2012

*Horregatik, Urnietako Udaleko udal talde sozialistak bat egin du Langardaren inguruan ezohiko osoko bilkura bat egiteko eskaerarekin. Kargu publikoren bat dugunok dugu urnietar guztien interesen alde egiteko betebeharra. Zer gabezia dauden egiaztatu ondoren, eskura ditugun baliabide guztiak erabili behar ditugu irtenbide bat emateko.*

